

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

GIZARTE POLITIKEN, ADINEKOEN ETA HAURREN SAILA

2021ean Vitoria-Gasteizen gizarte proiektuak garatzeko dirulaguntzak ematea

2021eko martxoaren 18an egindako ohiko bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizen 2021ean gizarte proiektuak garatzeko dirulaguntzak emateko deialdia eta hura arautzeko oinarriak.

2021eko apirilaren 7ko ALHAOn argitaratu ziren deialdia eta haren oinarriak, eta eskariak aurkezteko epea apirilaren 27an amaitu zelarik, ordura arte aurkeztu zituzten eskabideak lehiatu nahi zuten entitateek.

2021ean Gasteizko Udalaren dirulaguntzen deialdiak arautzeko oinarri orokorrekin bat etorri —2020ko abenduaren 30eko ALHAOn argitaratu ziren— horretarako eraturako batzordeak prozedura bete du, oinarrietan jasotako irizpideei jarraituz.

Aurrekariak kontuan izanik, dirulaguntzak ez onartzeko, emateko edo ezesteko proposamen hau egin da:

Balioespen-prozesuan onartu ez diren proiektuak:

—Deialdiaren oinarrietako baldintzak ez betetzeagatik onartu ez diren entitateak:

- Diocesanás-Jesús Obrero Fundazioa (Egibide) "EGINEWS. Buletin digitala" proiektua aurkeztu zuen. hauxe da deialdiaren xedea: "Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Sailaren eskumenekoak izanik, informazioa, sentsibilizazioa, prebentzio eta gizarte sustapena, ekintza solidarioen sustapena eta boluntariora xede duten eta 2021ean Gasteizko herritarrei zuzentzen zaizkien jarduerak eta ekintzak". Aurkeztutako proiektua ez zaio Gasteizko biztanleriari zuzentzen, ikastetxe jakin batzuetako ikasleei eta haien senideei baino ez. Horrez gain, proiektuak baitan hartzen dituen jarduerak ez dira soilik 2021ean burutzekoak, 2022rako aurreikusitakoak ere badaude. Bestalde, hezkuntzaren alorreko proiektua da; horrenbestez, ez dagokio Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Sailari. Aurkeztutako proiektua hezkuntzaren alorrekoa da, soilik hezkuntza-komunitateari zuzendua, eta hezkuntzaren alorra jorratzen du, ez soziala do sozio-sanitarioa: proiektuaren xedea hausnarketa-praktikan eta bizi-esperientzia komunitarioetan oinarrituta ikaskuntza jarraituz sustatzea da, hartara ikasleen eta hezkuntza-komunitatearen partaidetza bultzatzeko, eta ikastetxearen hezkuntza-proiektu baten barruan kokatzen da.

- Manuel Iradier elkarte afrikanistak "Afrika Ezagutu / Conocer Africa" proiektua aurkeztu du. Elkartearen estatuetan jasotzen denaren arabera, bere xedea "... arabarren artean behinola handia izan zen Afrikaren aldeko bokazioa sustatzea da, horretarako Afrikako herriekiko senidetza da. Asmo horrekin, "lankidetzak-mekanismoak ezarri nahi dira Afrikako leku jakin batzuetan". Hauxe diote Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Sailaren dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileek (zein 2021eko apirilaren 7ko -37. zk.- ALHAOn argitaratu baitziren), 2. orrialdean: "Deialdian elkarte, fundazio eta entitateek parte hartu ahalko dute, baldin eta honelako ekintzak egitea esanbidez jasota badaukate beren estatuetako xedeetan: gizarte-prebentzioari eta -sustapenari loturiko ekintzak, edo zailtasun sozialeko egoeran dauden pertsonen elkartzuna adierazteko eta laguntzeko ekimen zuzenak egitea xede dutenak". Manuel Iradier elkarte afrikanistak aurkeztutako "Afrika Ezagutu / Conocer África" proiektuari dagokionez, esan behar da hauxe dela bertako zenbait jardueren ardatza: "gizarte-eraldaketarako genero-ikuspegidun hezkuntza-jarduerak sustatzea, Arabako herritarren artean konpromiso solidarioko jarrerak

bultzatuko dituena, hartarako kultur trukea eta Afrikako eta bertako biztanleen egoera sozio-politikoari buruzko informazioa konpartitzekoa ahalbidetuko duten topaguneak eskainiz, aintzat hartuta horrek auzi horien inguruan kontzientzia kritikoa eraikitzen lagunduko duela. Oinarri horien 3. orrialdean esaten denaren arabera, ez dira deialdiaren xede izango "Udaleko beste sail edo erakunde baten edo lurralde historikoko nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko beste entitate baten berriazko eskumenekoak diren jarduerak edo ekintzek osatutako proiektuak". Zehazki, gutxienez Udalaren 2 deialditan jaso izan dira berriaz edo neurri handi batean proiektuaren eduki eta helburuak. Hauetan, zehazki:

1. Elkartasun globalerako sentsibilizazio-proiektuetarako 2021eko dirulaguntza-deialdia (Garapenean Laguntzeko Zerbitzuarena).

2. 2020an bizikidetzaren, aniztasuna, giza eskubideen babesa eta memoria historikoa sustatzeko jarduerak edo proiektuetarako dirulaguntzak emateko dirulaguntza-deialdia (Bizikidetzaren eta Aniztasun Zerbitzuarena).

Horrenbestez, aurkeztutako proiektua bazter uzten da, ez baita deialdi honetako xedetzat jotzen.

- Itxaropena elkarrekin aurkeztutako proiektua 35.049,18 eurokoa da, guztira, proiektua aurkezteko agiriaren 3. orrialdean adierazitakoaren arabera (eskabideari erantsia). halaber, 26.833,18 euroko dirulaguntza eskatu du, eskarian zein proiektuan berean jaso bezala. Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Sailaren deialdiko oinarri arautzaileek programa edo jarduerak bakoitzeko gehienez jaso daitezkeen kopuruz 11. orrialdean xedatzen dutenez, "Pertsona edo entitate bakoitzak proiektu bakar baterako laguntza eskatu ahalko du, eta gehienez 15.000,00 eurokoa izango da". Guztira, gehienez 30.000 euroko aurrekontua izan ahalko dute aurkeztu diren proiektuek". Aurkeztutako proiektuak muga biak gainditzen ditu.

- Ez da onartu Ezintasun intelektuala duten pertsonentzako ekintza eta parte-hartze komunitarioak (TALUR) elkarrekin eskaera, ez delako deialdiaren xede, oinarri arautzaileen arabera. Izan ere, horien arabera, "ez dira deialdiaren xede izango Udaleko beste sail baten edo lurralde historiko edo Euskal Autonomia Erkidegoko beste erakunderen berriazko eskumenekoak diren jarduerak edo ekintzek osatutako proiektuak". "Contigo puedo" proiektuak adimen-degaitasuna duten pertsonen laguntza zerbizua aurreikusten du, eta hori bigarren mailako arretako zerbizua da, autonomia babesteko zerbizua eta autonomia-mugek eragindako premiei erantzuteko zerbizua baita. (Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen 22. artikulua). Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoak ezartzen duenez, eskusio, mendekotasun edo babes-gabezia egoerek sortutako premiei erantzuteko bigarren mailako arretako gizarte zerbizuek foru aldundien eskumenekoak dira. (41. artikulua, 22. artikuluan araututako zerbizuek emateari buruzkoa). Horrez gain, elkarrekin estatutueta jasotzen da bere jarduerak degaitasun intelektualen bat duten pertsonen zuzentzen dizkiela antolatzen dituen jarduerak. Adimen-urritasunen bat duten pertsonen eta beren senideen bizi-kalitatea hobetzea du helburu programa horrek.

Balioetsi ondoren bideragarritasunaren irizpidea betetzen ez duten proiektuak:

Proiektuak balioetsi eta puntuazioak ezarri direlarik, aipatzen den elkarrekin aurkeztutako proiektuari dirulaguntzarik ez ematea erabaki da, ez duelako gutxienezko puntuazioa (20 puntu) lortu bideragarritasun tekniko eta ekonomikoari dagokienez, deialdiaren zazpigarren oinarrian zehaztu bezala:

– ASME.

ASMEren kasuan ez da egiaztatu aurrekontu-egokitzapena, aurrekontuak ez duelako kontratatutako den pertsonaren ordutegia xehatzen, eta beharra adierazle subjektibo eta iritzi pertsonal kontrastatu gabeetan justifikatzen duelako; horrenbestez, proiektuaren helmena eta inpaktua ez da estimazio huts bat baino. Horrez gain, eskatutako kopurua ez da langileak kontratatzerako baino bideratzen.

Betekizunak egiaztatu dituzten eta ebaluatu diren proiektuak.

Onuradun izateko ezarritako betekizunak betetzen dituztela eta aurkeztutako proiektuak dirulaguntzaren xede izan daitezkeela konprobatu, proiektuak balioetsi egin dira, oinarrietan ezarritako irizpideei jarraiki.

Deialdiaren baldintzak eta irizpideak bete dituzten proiektuetako bakoitzari emango zaion zenbatekoa kalkulatzeko, alderatu egin dira onartutako eta balioetsitako eskabideak, eta, horren arabera, haien arteko lehentasun-hurrenkera ezarri da. Aurrekontu-zuzkiduraren zenbateko osoa era proportzionalan banatu da, lortutako puntuazio-tarteen eta eskatutako zenbatekoaren arabera.

Eskatutako kopuruaren 100eko 100 eman ez zaien entitate guztiei jakinarazi egin zaie emandako kopurua, eta orobat adierazi zaie eskabidea berriz formulatzeko aukera dutela, eman daitekeen dirulaguntzaren konpromiso eta baldintzetara egokituta. Edonola ere, eskabideak birformulatzean errespetatu egin beharko dira dirulaguntzaren xedea, baldintzak eta helburuak, baita eskabideei buruz ezarritako balioespen irizpideak ere, hala jasotzen baita Gasteizko Udaren 20121eko dirulaguntzetarako oinarri orokorren birformulazio atalean.

Berriz formulatutako proposamenak aurkezteko epea ekainaren 16an (asteazkena) amaituta, honako elkarteek aurkeztu dituzte berriz formulatutako proposamenak:

– Aranbizkarreko ikastolako gurasoen (Zuriber) elkarteak birformulatu egin du hasierako proiektuaren zenbatekoa, 9.300,00 eurotik 4.547,70 eurora.

– ICONO Difusión Culturalek birformulatu egin du hasierako proiektuaren zenbatekoa, 11.006,18 eurotik 3.820,41 eurora.

– Gizarte sustapenerako Boscos elkarteak birformulatu egin du hasierako proiektuaren zenbatekoa, 16.974,00 eurotik 12.421,80 eurora.

– ASPACE elkarteak birformulatu egin du hasierako proiektuaren zenbatekoa, 8.500,00 eurotik 5.125,50 eurora.

– Gaixotasun Arraroen Espainiako Federazioak (FEDER) birformulatu egin du hasierako proiektuaren zenbatekoa, 8.854,38 eurotik 6.231,61 eurora.

– Iturrigorri Elkarlanek birformulatu egin du hasierako proiektuaren zenbatekoa, 29.975,00 eurotik 25.212,94 eurora.

– Hazkuntzan laguntzeko Besartean elkarteak birformulatu egin du hasierako proiektuaren zenbatekoa, 5.071,70 eurotik 2.695,00 eurora.

– Arabako gorren guraso eta lagunen elkarteak (ASPASOR) birformulatu egin du hasierako proiektuaren zenbatekoa, 24.100,00 eurotik 16.800,00 eurora.

– Banandutako aita eta amen Arabako elkarteak (Amapase) birformulatu egin du hasierako proiektuaren zenbatekoa, 6.141,43 eurotik 2.293,82 eurora.

– Gizarterako elkarteak birformulatu egin du hasierako proiektuaren zenbatekoa, 29.550,32 eurotik 25.580,32 eurora.

– Babestu elkarteak birformulatu egin du hasierako proiektuaren zenbatekoa, 12.400,00 eurotik 2.950 eurora.

– Crohn gaitzak eta kolitis ultzeradunak eragindako gaixoen Arabako elkarteak (ACCU) birformulatu egin du hasierako proiektuaren zenbatekoa, 2.400,00 eurotik 1.173,60 eurora.

– IKIRIKI gizarte eta hezkuntza elkarteak birformulatu egin du hasierako proiektuaren zenbatekoa, 10.000,00 eurotik 2.230,00 eurora.

– ASAMMA elkarteak birformulatu egin du hasierako proiektuaren zenbatekoa, 10.490,00 eurotik 5.320,00 eurora.

- Harresiak apurtuz elkarteak birformulatu egin du hasierako proiektuaren zenbatekoa, 8.595,75 eurotik 3.975,00 eurora.
- Fundación Fondo Formación fundazioak birformulatu egin du hasierako proiektuaren zenbatekoa, 10.000,00 eurotik 3.735,00 eurora.
- Asociación Solidaridad Vasco Ecuatoriana (ASVE) elkarteak birformulatu egin du hasierako proiektuaren zenbatekoa, 20.478,00 eurotik 6.505,00 eurora.
- ADRA fundazioak birformulatu egin du hasierako proiektuaren zenbatekoa, 12.589,00 eurotik 6.857,47 eurora.
- ADEAR elkarteak birformulatu egin du hasierako proiektuaren zenbatekoa, 3.400,00 eurotik 1.486,56 eurora.
- ARNASA elkarteak birformulatu egin du hasierako proiektuaren zenbatekoa, 1.499,40 eurotik 733,21 eurora.
- KONEXIO ONA elkarteak birformulatu egin du hasierako proiektuaren zenbatekoa, 30.000,00 eurotik 2.830,00 eurora.
- KUÉNTAME elkarteak birformulatu egin du hasierako proiektuaren zenbatekoa, 9.950,00 eurotik 4.841,10 eurora.
- HIRUKIDE elkarteak birformulatu egin du hasierako proiektuaren zenbatekoa, 18.096,25 eurotik 7.951,06 eurora.
- ARESBI elkarteak birformulatu egin du hasierako proiektuaren zenbatekoa, 4.000,00 eurotik 3.230,20 eurora.
- ATECE elkarteak birformulatu egin du hasierako proiektuaren zenbatekoa, 9.700,00 eurotik 5.849,10 eurora.
- BEGISARE elkarteak birformulatu egin du hasierako proiektuaren zenbatekoa, 9.545,18 eurotik 5.082,78 eurora.
- Itaka-Escolapios fundazioak birformulatu egin du hasierako proiektuaren zenbatekoa, 9.961,70 eurotik 3.720,69 eurora.
- SARTU elkarteak birformulatu egin du hasierako proiektuaren zenbatekoa, 30.000,00 eurotik 25.994,65 eurora.
- Arabako Itxaropenaren eta Adiskidetasunaren Telefonoaren elkarteak birformulatu egin du hasierako proiektuaren zenbatekoa, 10.000,00 eurotik 2.230,00 eurora.

1. Entitate hauei dirulaguntzak ematea proposatzen da:

ERAKUNDEAK	AURKEZTUTAKO PROIEKTUAREN ZENBATEKOA	ESKATUTAKO DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA	ESLEITUTAKOAK, GUZTIRA
Gizarterako	29.550,32 €	10.000 €	6.030 €
Fundación BOSCOS para la promoción social	16.974 €	10.000 €	6.030 €
AFARABA	25.500,61 €	10.000 €	6.030 €
Asociación de esclerosis múltiple Araba(AEMAR)	4.335,86 €	1.895,35 €	1.142,90 €
Asociación Parálisis Cerebral Alava(ASPACE)	8.500 €	8.500 €	5.125,50 €
FUNDACION ADRA	12.589 €	9.689 €	5.842,47 €
Asociación Daño Cerebral Adquirido ATECE	9.700 €	9.700 €	5.849,10 €
Iturrigorri Elkarlan	29.975 €	9.980 €	6.017,94 €
Arnasa Araba-Asociación alavesa de fibrosis quística	1.799,40 €	1.499,40 €	733,21 €
Asociación cultural deportiva GOIAN	19.000 €	4.000 €	1.956 €
Asociación Araba Elkarte Espina Bífida e Hidrocefalia(ARESBI)	4.000 €	1.800 €	880,20 €

ERAKUNDEAK	AURKEZTUTAKO PROIEKTUAREN ZENBATEKOA	ESKATUTAKO DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA	ESLEITUTAKOAK, GUZTIRA
Federación Española de Enfermedades Raras-FEDER	8.854,38 €	5.132,63 €	2.509,86 €
Asociación Ai Laket	27.951 €	10.000 €	4.890 €
ADEAR	3.040 €	3.040 €	1.486,56 €
INSOLA	25.921 €	10.000 €	4.890 €
Asociación de enfermos de Crohn y colitis ulcerosa de Alava (ACCU)	2.400 €	2.400 €	1.173,60 €
Asociación Afectados Retinosis Pigmentaria de Alava Begisare	9.545,18 €	9.545,18 €	4.667,59 €
SARTU	30.000 €	7.838,25 €	3.832,90 €
Asociación Alavesa de Mujeres con Cáncer de mama y Ginecológico (ASSAMA)	10.490 €	10.000 €	4.890 €
AMPA Ikastola Aranbizkarra (Zuriber)	9.300 €	9.300 €	4.547,70 €
Asociación de apoyo a la crianza Besartean	5.072 €	4.057,36 €	1.984,05 €
Asociación por una vida digna	3.680 €	3.680 €	1.799,52 €
Asociación Kuentame	9.950 €	9.900 €	4.841,10 €
Fundación Corazonistas	29.900 €	10.000 €	3.735 €
Fundación Itaka- Escolapios	29.910,50 €	9.961,70 €	3.720,69 €
Asociación Solidaria Vasco- Ecuatoriana (ASVE)	20.478 €	10.000 €	3.735 €
Asociación de padres, madres y amigos de las personas sordas de Alava(ASPASOR)	24.100 €	9.700 €	3.622,95 €
Icono Difusión Cultural	9.521,12 €	9.521,12 €	3.556,14 €
Asociación de madres y padres separados de alava-Amapase	6.141,43 €	6.141,43 €	2.293,82 €
Fundación Fondo Formación	10.000 €	10.000 €	3.735 €
Harresiak Apurtuz	8.595,75 €	6.876,60 €	1.946,08 €
Konexio Ona	30.000 €	10.000 €	2.830 €
Asociación Teléfono de la Esperanza	25.350 €	10.000 €	2.230 €
Asociación Socioeducativa IKIRIKI	10.000 €	10.000 €	2.230 €
Babestu	12.400 €	8.850 €	1.974 €
Hirukide-Federación de asociaciones de familias numerosas	18.096,25 €	10.000 €	2.230 €

2. Hurrengo entitateek aurkeztutako eskabideak tramitera ez onartzea, ez dituztelako betetzen deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintzak:

- Diocesanas-Jesús Obrero Fundazioa (Egibide).
- Manuel Iradier elkarte afrikanista.
- Itxaropena elkarte.
- Ezintasun intelektuala duten pertsonentzako ekintza eta parte-hartze komunitariorako elkarte (TALUR).

3. Dirulaguntzak ukatzea jarraian adierazitako elkarteek aurkeztutako proiektuei, ez baitute gutxieneko puntuazioa (20 puntu) lortu bideragarritasun tekniko eta ekonomikoaren irizpidean, (deialdiaren zazpigarren oinarrian zehaztua):

– ASME.

4. Ebazpen honen kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, zuzenean aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Nolanahi ere, alde aurretik aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori berariaz edo ustez ebatzi arte—. Ondoren, berariazko ebazpena ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo

argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, edozein unetan aurkeztu ahal izango da, araudi espezifikoaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko uztailaren 9an

Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saileko Administrazio Zerbitzuen burua
ROSANA URTARAN URTARAN